

# Basapiztiak



AINGERU EPALTZA  
IDAZLEA

**E**z omen dira zinemarako garairik onenak, baina Rodrigo Sorogoyenen *As bestas* pelikula bere bidea egiten ari da, Donostiako Zinemaldian ikuslearen saria jaso zuenetik. Espainiako Estatuan, sarrera-erosleak erantzuten, kritikak laudatzen eta garaikurrak metatzen ari da, lehengo irailean hasitako ibilbideari eman zionetik. Galizian, ordea, hotzago egin zaio harrera.

Herrialde horretan kokatu du Sorogoyenek bere lana. Galiziako landa-eremuan, Galizia sakonean. Galizieraz mintzo den Galizian. Ez dute, ordea, hala egiten, frantsesez eta gaztelaniaz baizik, filmeko heroiek. Nola ez begiko izan, inguruaren ederrak liluraturik, halako herrixka batean etxea erosi eta bertatik laborantza ekologikoari ekin dion bikote ameslari, maitemindu, liburu zalea. Eta nola ez begitan hartu filmeko gaiztoak, hain bikote zoragarriaren amesgaizto bilakatzen diren auzoko pitzatuak, herrixkako betiko bi anaia mutilzahartuak, behitegian edo larreanazienda txar batzuk gobernatzeko ari ez direlarik, denbora ostatuan edaten ematen dutenak. Basakeria galegoz mintzo baita *As bestasen*.

Basakeria galegoz  
mintzo da 'As bestas'en.  
Eztabaida ez da luzatu.  
Galiziar aunitzek  
ez dute laket izan  
galiziartasunaz ematen  
den irudia

Eztabaida ez da luzatu. Galiziar aunitzek ez dute laket izan galiziartasunaz ematen den irudia. Filmean anaia zaharrenarena egin duen Luis Zahera antzezlea bera gogaiturik agertu da he-dabideetan. Itxuraz, zuzendari espainiarrek *galegoarena* egiteko baizik ez dute deitzen, erran nahi baita, narkoarena edo basaburuar ilun eta basarena.

Ezaguna denez, benetako gertakari batzuetan oinarritu da Sorogoyen bere istorioa ontzeko. 2010ean, *As bestasen*

agertzen diren bezalatsuko pasarteak gertatu ziren Ourenseko herrixka batean. Zuzendariak, dena dela, ez die beti benetako gertakizunei orpoz orpo segitu. Konparaziorako, egiazkoan protagonistak ez ziren frantsesak izan, nederlandarrak baizik. Istorio unibertsal bat aurkeztu nahi bazuen –zer zine zuzendarik ez du nahi istorio unibertsal bat aurkeztu?– neke handirik ez zion emanen bertze nonbait kokatzeak.

Izan ere, *As bestasen* kontatzen dena eta oinarrian duena bertze nonahi gerta zitekeen. Euskal Herrian ere bai, neke handirik gabe. Asmatzen duzue? *As bestasen* ordez, *Basapiztiak*. Film bat, non atzerritar puta batzuek defendatzen duten ama lurra, ekologia eta jasangarritasuna, eta baserritar jatorrak, aldiz, beren mendiak enpresa eoliko transnazio-nal bati saltzeko prest dauden, azien-dak kendu eta Azpeitian, Durangon edo Elizondon –demagun– taxi bat paratze-ko adina diruren truke. Film bat, non basakeria euskaraz mintzo den.

Ez luke eztabaida tikirik piztuko gure artean. Ikusleen saria, bederen, ez luke hartuko Donostian. ●

**bertako** -rekin BAI!  
igogailuak | ascensores

**OROTARIKO ZERBITZUA**  
**100€-tik/hileko**

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz **bertako 24/7/365** zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

**GIPUZKOA**  
943 903 450

**BIZKAIA**  
946 523 935

**ARABA**  
945 712 822

**NAFARROA**  
848 870 917

[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)